

Gailur Ekaiztsuak

JOANNES JAUREGI

Sarrera

Besteren itzulpenean muturra sartzeak beti du zerbait plazer ezkututik, baina batez ere nork bere intimitatean egiten duenean. Besterik da beste itzultzaileen jardunaren azpildurak bilatu eta jendaurrean bistartzeko langintza xehean aritzea. Halakoetan, seguruagoa izan ohi da bisturia itzultzaileak berak zuzentzea, hartara nahieran justifika baitezake bere lana, barkazioa eskatzeko edo mendeku-zina egiteko irakurleei.

Gailur Ekaiztsuak nobela ez da nolana hiko obra, eta itzulpena ere ez du nolana hiko. Literatur Itzulpenaren Euskadi Saria eman zioten 2018an, eta ez alferrik. Mimos eta tentuz egindako itzulpena baita, jatorrizko testuaren hamaika plegu eta ahotsetara ederki moldatzen dena, neurri-neurriko eskularria nola. Aztergai gaitza, inondik ere, Irene Aldasororen burubarrenean bizi ez denarentzat; izan ere, itzulpena eta jatorrizkoa konparatzen hasten denak inpresioa du ezer gutxi duela komentatzeko, testu itzuliak berak baitio esan beharreko guztia. Barka, beraz, irakurle, nekez esan litezkeenak esateko ohar solte eta baldar samar hauengatik. Eta barka, noski, Irene Aldasoro, zeinaren lanak benetan merezi baitu azpildurak jendaurrean erakustea.

Gailur Ekaiztsuak

Emily Brontëk utzi zigun nobela bakarra dugu, hil baino urtebete lehenago argitaratua eta idazlearen bizialdian (30 urte doi) batere arrakastarik izan gabea. 1847 hartako kritikek liburu lakartzat jotzen dute, zenbaitek baita original eta indartsutzat ere, baina oro har kritika moralista ugari izan zituen: «Misterio hutsa da nola saia zitekeen gizaki bat halako libururik idazten bere buruaz beste egin gabe dozena bat kapitulu amaitzerako. Zitalkeria trauksilen eta

naturaz kanpoko horroreen nahaste bat da [a compound of vulgar depravity and unnatural horrors]». ¹ Batzuek bereziki ez-femeninotzat ere jotzen dute: «Lakarregia baita gizonentzat ere, lakarra hizkuntzaz eta kontzepzioz» (Allot, 1974, 292. or.).

Eta, galbahe moralistak gorabehera, ezin esan erabat oker zeudenik. Izan ere, tradizioak maitasun-istoriotzat saldu digun arren, *Gailur Ekaiztsuak* nobela latza da, eta perbertsoa. Berrogei urte eta bi pertsonaia-belaunaldi biltzen ditu, guztiak ere Yorkshire aldeko *moorren* paisaia mortu eta latzean girotuak. Muin-muinean maitasun ero eta galbideratu bat dauka, Heathcliffen eta Catherineren artekoa, baina amodiozko istorioa erabat aienatuta geratzen da Heathcliffen herrazko deabrutasunean. Muturreraino eramandako pasioak eta gorrotoak: nobela erromantiko peto-petoa.

Itzulpenari erreparatzeko, ezin Brontëren idazkera aipatu gabe utzi. Eleberri osoan hainbat estilo eta erregistro gurutzatzen dituen arren (gehienbat pertsonaien mintzaldietan), oro har nahiko molde jasoan dago idatzia, are hanpurusean ere; zenbaitek —tartean Somerset Maugham idazleak— baldartzat jo dute erregistroa goratzeko idazmolde hori. Maughamek berak bere *Ten Novels and Their Authors* lanean dioenez, *Gailur Ekaiztsuak* «gaizki idatzia» dago, «estilo hanpatu eta pedante» batean. Hala ere, aitortzen dio baliorik idazmolde horri:

Badago nolabaiteko *pathos* bat apaiz-alaba hau [Brontë] hain errime saiatzean dotorezia hanpatuz idazten [...] batek ez luke nahi *Gailur Ekaiztsuak* grazia handiagoz idatzia izaterik; ez zatekeen nobela hobea izango hobeki idatzia egonagatik. [...] hortaz, hizkuntzaren estilizazio trakets honek badu zerbait goratu egiten duena, bitxiki, istorioaren pasio bortitza.

(Maugham, 1954)

Onartu beharra dago, baina, idazmolde jaso hori gorabehera, Brontëk hainbat erregistro eta estilo erabiltzen dituela nobela osoan, gehienbat pertsonaiak karakterizatze aldera. Batetik, bi narratzaile homodiegetikoen mintzamolde arras desberdinak dituzte, eta, hala, ahots bereiziz gidatzen dute kontaera. Bestetik, pertsonaia bakoitzaren mintzaldiak kontuz ezaugarrituta daude pertsonaiaren beraren arabera; hor dugu, adibidez, Joseph pertsonaia, zeinaren hizkera dezente aldentzen den ingeles estandarretik Yorkshire aldeko azentu baterantz —berariaz erreparatuko diogu aurrerago—; eta Heathcliff, protagonistetako bat, zeina, eskuarki zuzentasunez eta tarteka dotoreziaz ere mintzatuagatik, zakarra eta maldiziozalea baita:

1. Kritika hori *Graham's Lady Magazine* n kaleratu zen, 1848an. Aipua *The Telegraph*eko «How Wuthering Heights caused a critical stir when first published in 1847» artikulutik aterea da; artikulua horretan, nobela kaleratu zen garaiko kritika gehiagoren aipuak ere badaude.

<p>‘And you, worthless —’ [...] There you are, at your idle tricks again? The rest of them do earn their bread —you live on my charity! Put your trash away, and find something to do. You shall pay me for the plague of having you eternally in my sight, do yo hear, damnable jade?</p> <p style="text-align: right;">21. or.</p>	<p>—Eta zu, ezertarako ez den... [...] Hor zaude, trikimailu alfer horietan orain ere! Besteek beren ogia irabazten dute; zu, berriz, nire karitatetik bizi zara! Utzi zabor hori, eta bilatu egitekoren bat. Ordaindu beharko didazu zu sekula guztian nire begien aurrean eduki behar-raren zigorra; aditzen duzu, sorgin madarikatu horrek?</p> <p style="text-align: right;">57. or.</p>
--	--

Izenburua

Liburu honek azalean bertan darama itzultzailearentzako lehen buruhaustea: *Wuthering Heights*, euskal herritarrok *Cumbres borrascosas* edo *Les Hauts de Hurlevent*² gisa ezagutuko genuena nagusiki. Kontua da Brontëk nobelaren hasiera-hasieran ekartzen duela izenburua lerroen artera, eta joko polit bezain —itzultzailearentzat— malapartatu bat egiten:

<p>Wuthering Heights is the name of Mr Heathcliff’s dwelling, ‘Wuthering’ being a significant provincial adjective, descriptive of the atmospheric tumult to which its station is exposed in stormy weather.</p> <p style="text-align: right;">2. or</p>	<p>Wuthering Heights (Gailur Ekaiztsuak) du izena Heathcliff jaunaren egoitzak, “Wuthering” delarik probintziako adjektibo adierazgarri bat, etxea dagoen tokiak ekaitzaldietan jasaten duen inarrosaldi atmosferikoa deskribatzen duena.</p> <p style="text-align: right;">20. or.</p>
--	---

Gailur Ekaiztsuak, beraz, beste ezer baino lehen, toponimoa da: oikonimoa, edo etxe-izena. Are gehiago: etxe-izen berezi bat da, baita ingelesez ere, narratzaileak emandako azalpenarekin argi geratzen baita espero duela irakurleak —ingelesezko irakurle jatorrizkoak ere— ez jakitea zer esan nahi duen *wuthering* hitzak. Hortaz, jatorrizkoan ere, hitza ez da batere gardena. Merriam-Webster hiztegiaren arabera, hauxe da *wuther* aditz iragangaitzaren definizioa: «to blow with a dull and roaring sound». Ingalaterrako marka dialektal eta guzti. Beraz, hitza bere horretan itzultzea ez da aski, narratzailearen azalpenak zentzurik ez galtzeko moduan itzuli beharko bailitzateke. Idealki, joko poliedriko arantzatsu hori euskarari emateko, itzultzaileak

2. *Gailur Ekaiztsuak* liburuak makina bat itzulpen izan ditu frantsesez, guztiak ere izenburu desberdinarekin, eta alferrik litzateke guztiak kontuan hartzea. Lan honek Frédérique Delebecque itzultzailearen bertsioa hartu du erreferentziazat (ikus bibliografia).

wutheringen pareko hitz bat bilatu beharko zukeen, zeinak esanahiari eusten dion eta aldi berean oikonimo ez-garden gisara funtzionatzen duen. Horrez gain, baina, kontuan hartzekoa da *Wuthering Heights* edo *Gailur Ekaiztsuak* etxearen izenetik askoz harago doala, eta kasik nobela osoaren metonimia bat dela, bertan biltzen baitira istorioa, pertsonaiak, girotzea, Brontëren idazmolde *ekaiztsua*... Karga sinboliko hori guztia erantsi behar zaie bi hitzoi.

Ez da erronka makala, beraz, ezinezkoa ez esateagatik. Ikus dezagun, halakoetan egin ohi den legez, nola jokatu duten gure erdaretako itzultzaileek:

<p>Wuthering Heights (Les Hauts de Hurle-Vent), tel est le nom de l'habitation de Mr. Heathcliff: «wuthering» est un provincialisme qui rend d'une façon expressive le tumulte de l'atmosphère auquel sa situation expose cette demeure en temps d'ouragan.</p> <p style="text-align: right;">9.-10. or.</p>	<p>Cumbres Borrascosas es el nombre de la finca del señor Heathcliff. Se trata de una denominación de toponimia local y el adjetivo "borrascosas" alude significativamente a las perturbaciones atmosféricas a que por su situación se ve sometida cuando el tiempo se pone de tormenta.</p> <p style="text-align: right;">6. or.</p>
--	---

Zuhurtasunaren bidetik, Aldasorok Frédéric Delebecqueren erabaki bera hartzen du: zuzen eta garbi itzuli du *Gailur Ekaiztsuak*, baina pasarte horretan jatorrizkoari eutsita, hartara narratzailearen esplikazioa ez porrokatzeko. Ez da aukerarik dotoreena, baina bai osoena, eta erabat ulertzekoa itzultzaile gisa. Alabaina, literaturaren aldetik, beldur naiz ez ote den gehitxo bermatzen narratzailearen azalpen horretan, eta ez ote duen narratzailea bere mugetatik harago luzatzen. Izan ere, hitzak erantsi zaizkio narratzailearen jardunari; alegia, nolabait manipulatu geratu da testuaren edukia bera, eta zalantza dut horrek ez ote duen narratzailearen ahotsa kaskartzen eta itzultzailea gehiegi bistaratzen. Hipotesiaren erreinuan mintzo naiz, baina ez dakit noraino merezi zuen ingelesezko izena eranstea, osagarri gisa bada ere, ikusita nola, gaztelaniazko itzulpenean, Carmen Martín Gaiteri ez zitzaion lekuz kanpo geratu *borrascosas* hori, *wuthering* baino askoz ere ohikoagoa izan arren. Nolanahi ere, erabaki zuhurra da, eta, pasarte apur bat zalantzazko hau gorabehera, nobela osoan ederki funtzionatzen du *Gailur Ekaiztsuak* izenburuak.

Euskalkiak literatura itzulian

Ikusita euskalkien auziak zer-nolako grinak pizten dituen gurean, itzultzaile batentzat erabaki ausarta da estandarra aldaera geografiko batera makurtzea jatorrizkoaren aldaera horiek emateko. Gure belaunaldiak ondo gogoan du nola Iñaki Mendigurenek bizkaiera batuan (edo batu bizkaitarrean, nondik begiratzen zaion) hitz eginarazi zion Hagrid pertsonariari *Harry Potter* liburuetan. Erabaki ausarta, inondik ere, eta kritika ugari jaso zituena; horren erakusgarri dugu *Egunkariaren Bizkaia* gehigarriko lerroburu zorrotz bat, 2002ko maiatzaren 12koa. Filmaz ari

da, baina Mendigureni zuzendua dago argi eta garbi: «*Harry Potter* filmaren euskarazko bertsi-
noan agertzen dan pertsonaia baldar bakarrak bizkaieraz egiten dau».

Eta, era horretako kritikak gorabehera, batek pentsa lezake euskalkietara lerratzeko bulkada
hori ez ote den, euskalki jakin batzuk gutxiesteko intentzioa bainoago, euskara batua oraindik
erabat errotu gabe ote daukagun sintoma. Gogoeta-lerro horrek luzaz gainditzen ditu artikulu
honen mugak, baina ezin uka, nolana den, halako itzulgaiei euskalkien kolorea eranstea au-
kera ederra dela, labainkorra izanagatik, estandarraz besteko mintzaldion aniztasunari eusteko
eta ez, adibidez gaztelaniaz egin ohi duten bezala, homogeneizatzeraz jotzeko.

Oraingo honetan, Irene Aldasorok ere bide horiek urratu ditu, eta Goierri aldeko hizketa-
moldeetara hurbildu ditu Joseph pertsonaiaren elkarrizketak:

<p>T' maister nobbut just barueid, and Sabbath nut oe'red, und t'sahnd uh't gospel still i' lugs, and yah darr be laiking! shame on ye! sit ye dahn, ill childer! they's good books enuegh if ye'll read'em: sit ye dahn, and think uh yer sowls!</p> <p style="text-align: right;">14. or.</p>	<p>Nausia lurperatu berri; domekea amaitu be, ta ebanjelioko hitzek oandio belarritan dituzuela, jolas eiten atrebitzen zate? Lotsagabeak! Eseri hor, umegorriok! Baa hemen nahikoa liburu on leitu nahi izan ezkeo; eseri, eta pentsatu zuen ariman! (44)</p> <p style="text-align: right;">44. or.</p>
---	--

Euskalkiaren ezaugarriak ez daude nolana aukeratuak; nabaria da Aldasoro eredu estanda-
rretik abiatu dela, eta batutik euskalkiranzko bidea egin duela —egia da, bestalde, euskalkiaren
talka bizkaieraren kasuan baino txikiagoa dela, gipuzkera gertuago baitago estandarretik—.
Batutik kanpoko ezaugarri gehienak fonetikoak dira: bokalen arteko kontsonante ahostun
ezabatzeak (bada > *baa*, nagusia > *nausia*), silaba pretonikoen elipsiak (eta > *ta*, gabe > *be*) ...

Errepara diezaiozun orain Carmen Martín Gaiteren gaztelaniazko itzulpenari ere, zeina
eredu estandarretik aldendu gabe saiatu zen Josephen mintzaldiak ematen:

<p>Aw wonder hagh yah can faishion tuh stand thear i' idleness un war, when all on 'em's goan aght! Bud yah're a nowt, and it's noa use talk- ing —wah'll niver mend uh yer ill ways; bud, goa raight tuh t'divil, like yer mother afore ye!</p> <p style="text-align: right;">10. or.</p>	<p>Ez tait nola molda zaitzkeen hor alperkeriin eo zerbait oke- rragoon eoteko, danak kan- poa junda diila! Ezertaako etzea, ordea, ta alferrik da eze esatea. Etzea inoiz zentzatuko, eta deabrana jungo zea zu- zeneen, aurretik zue ama jun- tzan bezela!</p> <p style="text-align: right;">35. or.</p>	<p>No me explico cómo es usted capaz de estarse ahí todo el día mano sobre mano, calen- tándose tan tranquila mien- tras trajinan los demás. Pero de qué sirve decirle nada a un ser inútil que nunca será capaz de corregir sus resabios. ¡Tenga por seguro que se irá de patitas al infierno, lo mis- mo que su madre!</p> <p style="text-align: right;">19. or.</p>
--	--	--

Efektua erabat desberdina da: nabari da Martín Gaita saiatu dela ahozko erregistro informal zahar batera hurbiltzen (*mano sobre mano, trajinar, resabio, de patitas al infierno*), baina, jatorrizkoan eskuarki fonetikan gertatzen diren berezitasunak morfologiara eta —batez ere— lexikora eramanez, Martín Gaiteren hautuak okerrago eusten dio denboraren joanari (1984an eman zen argitara). Gaur egun irakurrita, gehiago dirudi pertsonaia xeblete eta *refranero* baten mintzaldia.

Efektu hori da, hain justu, guztiaren giltzarria; izan ere, hizkera hori ez da apeta soila, eta ematen duen efektua pertsonaiaren karakterizazioaren parte da. Beraz, ezin da aise saihestu, ezta edonola konpondu ere. Joseph nekazari zakar eta petraldu bat da, beti errietan dabilena, ozpinduta, ingurukoei kargu hartzen eta Bibliaren pasarte ilunak errezitatzen. Pertsonaia gisa apenas duen garapenik, baina oso dago karakterizatuta, hain justu ere Gailur Ekaiztsuen giroztearen parte delako.

Hizkera karakterizazio *negatibo* horren parte bada —eta nolabaiteko klase-hierarkia baten isla, ezin uka—, eta itzultzaileak hizkuntza-aldaera hori ezinbestean adierazi behar badu —gurean aldaera geografiko baten bidez—, bada, hautaturiko aldaera geografikoa nolabait loturik geratzen da, ezinbestean, karakterizazio negatibo horri. Uste dut Harry Potterekin piztu ziren kritikek ere horretan zutela oinarria. Alabaina, ez genuke ahaztu behar pertsonaien karakterizazioa idazleak egina dela, ez itzultzaileak, eta azken horren egitekoa idazlearen lana ahalik eta osoen eta koloretsuen ekartzea dela. Eta, nire iritziz, euskalkiak era honetan erabiltzeak kolore polita ematen dio testuari.

Estiloa eta erregistroa

Nobelak, esan bezala, bi narratzaile nagusi ditu: Lockwood jauna, istorioaren abiaburua, zeinak bere egunerokoan idazten duen Gailur Ekaiztsuetan gertatuen berri, eta Nelly etxezaina, zeinak etxaldearen azken 40 urteko historia kontatzen dion Lockwoodi. Bi narratzaileon ahotsak aski desberdinak dira, eta merezi du aztertzea zer ezaugarri orokor dituzten hala narrazioetan nola mintzaldietan.

Lehen narratzailea: Lockwood jauna

Lehenbiziko narratzaileak oso estilo arranditsu eta jaso dauka; perpausak korapilatu eta luzatzeko joera du, batez ere elkarrizketetan, deixia barra-barra erabiliz, eta tartekiak ere, franko. Idazmolde horrek badu zentzurik; urruntasuna transmititzen digu, eta istorioan —berak narraturiko zatian— Lockwood etengabe arrotz sentitzen dela ematen digu aditzera. *Outsider* bat baita, Gailur Ekaiztsuetako istorio ilunaren eta irakurleen arteko bitartekaria. Ikus ditzagun haren narrazio-moldearen adibide batzuk:

<p>There was such anguish in the gush of grief that accompanied this raving, that my compassion made me overlook its folly, and I drew off, half angry to have listened at all, and vexed at having related my ridiculous nightmare, since it produced that agony; though <i>why</i>, was beyond my comprehension.</p> <p style="text-align: right;">20. or.</p>	<p>Halako larrimina erakusten zuen eldarnio hartan lehertu den nahigabeak, ezen zentzugabekeria hari ez ikusi egitera eraman bainau errukiak, eta aldendu egin naiz, erdi haserre hura batere entzun izanaz, eta gaitziturik nire amesgaizto barregarria kontatu izanaz, halako oinazea eragin duenez, nahiz eta zergatia nire ulermenetik kanpo egon.</p> <p style="text-align: right;">55. or.</p>
--	--

Itzultzeko orduan, badirudi Aldasoro oro har irizpide nagusi bati atxiki zaiola bi narratzai-leekin; orpoz orpo —edo al bait gertuen— jarraitzea perpausen jatorrizko egitura sintaktiko orokorrari, jariorik eten gabe. Horretarako, atzerakarga saihestera jotzen du, hartara tartekiak eta aposizioak ere lasai eransteako:

<p>I, who had determined to hold myself independent of all social intercourse, and thanked my stars that, at length, I had lighted on a spot where it was next to impracticable —I, weak wretch, after maintaining till dusk a struggle with low spirits and solitude, was finally compelled to strike my colours; and, under pretence of gaining information concerning the necessities of my establishment, I desired Mrs Dean, when she brought in supper, to sit down while I ate it; hoping sincerely she would prove a regular gossip, and either rouse me to animation or lull me to sleep by her talk.</p> <p style="text-align: right;">22. or.</p>	<p>Ni, gizarte-harremán orotatik aparte egoteko erabakia hartu, eta, azkenean, halakorik izatea ia ezinezkoa den toki batean suertatu naizelako nire izarrari eskerrak eman dizkiodan hau, ni, koitadu herabe hau, adorerik ezarekin eta bakardadearekin ilunabarra ere borrokan jardun eta gero, bandera beheratu beharrean gertatu naiz; eta leku berrian kokatzearen beharkizunei buruzko informazioa eskuratzeko aitzakiarekin, Dean andreari eskatu diot, afaria ekarri didanean, esertzeko nirekin nik afaldu bitartean, bene-benetan itxaroz berritsu petoa suertatuko ahal zaidala emakumea, eta haren solasak dela animoa suspertuko didala, dela lotarako urrumatuko nauela.</p> <p style="text-align: right;">60. or.</p>
--	--

Lockwoodek estilo hanpurus horri eusten dio mintzaldietan ere; are, esango nuke itzultzaileak narrazioan baino maizago erabiltzen dituela *ezen*, *harik eta* eta halako balia bide prepositiboak. Halaber, aditz-deixi ugari erabiltzen ditu, bere buruari erreferentzia egite aldera:

<p>Yet, I'll venture to say, that, surrounded by your family, and with your amiable lady as the presiding genius over you home and heart...</p> <p style="text-align: right;">8. or.</p>	<p>Hala ere, ausartuko nintzateke esatera ezen, familia inguruan duzularik, eta zure emazte atsegina etxeko eta bihotzeko jeinu babesle duzularik...</p> <p style="text-align: right;">32. or.</p>
<p>Mr Lockwood you new tenant, sir. I do myself the honour of calling as soon as possible after my arrival, to express the hope that I have not inconvenienced you by my perseverence in soliciting the occupation of Thrushcross Grange; I heard yesterday you had had some thoughts...</p> <p style="text-align: right;">1. or.</p>	<p>Lockwood jauna naiz; zure maizter berria, jauna. Iritsi eta hainbat arinen etortzeko ohorea egin diot neure buruari, adierazi nahi baitizut espero dudala ez zintuela gogaitaraziko Birigarro Gurutzeko Etxaldea hartzeko erakutsi dudan setak. Atzo entzun nuen erabili dituzula asmoak...</p> <p style="text-align: right;">19. or.</p>
<p>Rought wheather!', I remarked. 'I'm afraid, Mrs Heathcliff, the door must bear the consequence of your servants' leisure attendance.</p> <p style="text-align: right;">6. or.</p>	<p>Eguraldi makurra! —esan nuen nik—. Beldur naiz, Heathcliff andrea, atek ez ote dituen pagatu beharko zuen zerbitzarien arta astitsuaren ondorioak.</p> <p style="text-align: right;">29. or.</p>

Bigarren narratzailea: Dean andrea

Ellen Dean edo Nelly dugu narratzaile nobelaren parterik handiengan. Etxezain aritzen da Gailur Ekaiztsuetan, eta, hortaz, espero izatekoa da haren estiloa ez izatea Lockwood hiritarra-rena bezain hanpatua, eta gertuago egotea ahozkotik —ahoz ari zaio-eta kontatzen Lockwood jaunari—. Eta, hala den arren, Deaneke batzuetan gehiegi jasotzen eta hanpatzen du diskurtsoa. Somerset Maughamek hori salatzen dio Emily Brontëri, nobela gaizki idatzia dagoelako kritikaren barruan:

Elkarrizketako estiloa egokia litzateke; Emilyk [Brontëk] inongo gizakik ezingo lukeen bezala hitz eginarazten dio. Hona hemen pasarte tipiko bat: «Hari buruzko arrangura guztiak leuntzen saiatu nintzen, behin eta berriro errepikatuz ezen konfiantzari traizio egite hura, baldin eta halako deitura gordinik merezi bazuen, azkena izango zela». [...] Izugarri handiustea da haren diskurtsoa.

(Maugham, 1954)

Hala eta guztiz ere, ezin uka daiteke Ellenen estiloa oro har arinagoa dela Lockwoodena baino, lotuagoa elkarrizketari eta ahozkoari, baita narrazioan ere:

<p>He was, and is yet, most likely, the wearisomest, self-righteous pharisee that ever ransacked a Bible to rake the promises to himself and fling the curses on his neighbours.</p> <p style="text-align: right;">28.-29. or.</p>	<p>Hura zen, eta oraindik ere hala izango da seguruenera, inoiz Biblia arakatzen ibili den santu-usteko fariseu aspergarriena, zertarako eta bedeinkazioak bere aldera biltzeko eta madarinkazioak hurkoari jaurtitzeko.</p> <p style="text-align: right;">72. or.</p>
--	--

Pasarte jaso samarrak, dena den, ez dira gutxi:

<p>‘I am come to see thy father, Hareton’, I added, guessing from the action that Nelly, if she lived in his memory at all, was not recognised as one with me.</p> <p style="text-align: right;">79. or</p>	<p>—Zure aita ikustera etorri naiz, Hareton —erantsi nuen, haren egintzagatik antzemanez ezen Nelly, emakume hura haren oroimenean bizirik bazegoen behinik behin, ez zuela nirekin identifikatzen.</p> <p style="text-align: right;">165. or.</p>
---	---

Estiloa ez da Lockwoodena bezain hanpatua, baina batzuetan hark bezala kiribiltzen ditu perpauak. Iruditzen zait itzultzaileak desberdin erabili dituela baliabide prepositiboak Lockwoodekin eta Nellyrekin; bi-bietan nabarmen arintzen dute testua, batez ere sintaxia katramilatzen delarik, baina nago Lockwoodengan funtzio estetiko bat ere badutela, diskurtso orokorraren edergarri, eta Nellyrengan, berriz, erabat funtzionalak direla, tresna hutsak sintaxiaren egitura hautsi gabe irakurlea ez galtzeko.

Izan ere, Lockwoodek nagusiki elkarrizketetan erabiltzen ditu baliabide prepositibo horiek, aditz-deixiarekin batera, eta Nellyk, aldiz, narrazioan bakarrik. Horrek asko desberdintzen ditu biak, elkarrizketetan Nellyren erregistroa askoz ere *egokituagoa* baita:

<p>‘Injured!’ I cried angrily. ‘If he is not killed, he’ll be an idiot! Oh! I wonder his mother does not rise from her grave to see how you use him. You’re worse than a heathen —treating your flesh and blood in that manner!’</p> <p style="text-align: right;">53. or.</p>	<p>—Mina! —oihu egin nuen haserre—. Hil ez bada, inozo geratuko da! Ene! Ez dakit nola ez den ama hilobitik altxatzen nola darabilzun ikustera. Fedegabe bat baino okerragoa zara: zeure odol eta haragikoa modu horretan tratatu!</p> <p style="text-align: right;">118. or.</p>
--	---

Akaburako

Gailur Ekaiztsuak itzulpen-lan mardula da, eta iruzkin solteok ez dira lan horren ezaugarrien lagin txiki bat besterik. Azterketa honetatik kanpo geratu dira erreferentzia kulturalen itzulpenak, oin-oharrak, Ingalaterrako folkloreaki dagozkion hainbat hitzen euskaratzeak eta beste

hainbat gai interesgarri. Izan ere, itzulpen oparo honek baditu beste hamaika ertz, ezinbestean kontuan hartu beharrekoak inoiz itzulpen osoa begi zorrotzagoz aztertzekotan. Halarik ere, uste dut iruzkin xumeok lagungarri direla itzulpenari traza hartzeko eta gogoeta egiteko berezitasun horien inguruan; izan ere, *Gailur Ekaiztsuak* bezalako klasiko bat euskaratzeak dakartzan arazoak, buruhausteak eta gorabeherak finean ez dira edozein itzulpen-lanetan aurki ditzakegunen oso bestelakoak, guztiak ere nola edo hala lotzen baitzaizkie gure hizkuntzaren hertsadurei eta txikitasunei.

Hitz beste egin aurretik, baina, gogoeta gisa iradoki nahi nuke inpresioa dudala ezen azken boladako hainbat itzulpenek —tartean, noski, *Gailur Ekaiztsuak* honek— fintasun bereziz atzitzen dutela orain arte euskaraz nekez irakurtzen genuen idazkera puztu bat, erregistro jaso oso partikular bat, anglosaxoi-tankerakoa esango nuke, gure inguruko erdara latindarretako estilo puztuaren arrunt desberdina; Kazuo Ishiguroren *Egunaren hondarrak*, esaterako, horren adibide iruditzen zait. Baliteke inpresio hori oso okerra izatea, eta, ez bainaiz gogoeta areago zehazteko gauza, isiltzea izango dut onena, Irene Aldasororen itzulpen bikain honen eta orobat gure hizkuntzaren garaipenak diren itzulpen guztien gorazarrean.

BIBLIOGRAFIA

Gailur Ekaiztsuak

- BRONTË, Emily (2017). *Gailur Ekaiztsuak*, Literatura Unibertsala bilduma: Erein eta Igela.
- (1992). *Wuthering Heights*, Londres: Wordsworth Editions.
- (1984). *Cumbres Borrascosas*, Bartzelona: Editorial Bruguera.
- (1931). *Les Hauts de Hurle-Vent (Wuthering Heights)*, Bibliothèque électronique du Québec.

Besteak

- ALLOT, Miriam Farris (ed.) (1974), *The Brontës: The Critical Heritage*. New York: Routledge.
- BLOOM, Harold (ed.) (2008). *Bloom's guides: Emily Brontë's Wuthering Heights*. New York: Bloom's Literary Criticism. Sarean eskuragarri: <https://mmcl.blogspot.com/201/01/nf-emily-Brontë-and-wuthering-heights.html> [azken kontsulta: 2019-04-09]
- MAUGHAM, Somerset (1954). *Ten Novels and their Authors*, London: Heinemant.

Resumen

Al hilo de la traducción al euskera de la novela clásica *Cumbres Borrascosas*, de Emily Brontë, el presente artículo pretende llevar a cabo un análisis crítico de la labor de su traductora, Irene Aldasoro, comparando la traducción con el texto original. Tratándose la traducción de la novela de Brontë de un trabajo muy extenso y profundo, el artículo no puede profundizar en la misma medida, por lo que solo se citarán las especificidades más relevantes de la traducción de Aldasoro, analizadas siempre mediante la comparación entre ambas versiones. El artículo, entre otras cuestiones, se refiere a la traducción del título y al uso de los dialectos del euskera, pero pone énfasis en el estilo culto de la obra, que se refleja a través de diversos recursos tanto en el original como en la traducción.

Résumé

Dans le cadre de la traduction en basque du roman *Les Hauts de Hurlevent* d'Emily Brontë, cet article se propose de procéder à une analyse critique du travail de sa traductrice, Irene Aldasoro, en comparant sa traduction avec le texte original. La traduction du roman de Brontë étant un travail considérable et profond, nous ne pouvons pas, dans cet article, effectuer une analyse poussée. Nous ne citons donc que les spécificités les plus remarquables de la traduction d'Aldasoro, en comparant toujours les deux versions. L'article fait référence, entre autres, à la traduction du titre et à l'utilisation de dialectes basques, et souligne notamment le langage soutenu de l'œuvre qui sont transmis par divers moyens dans le texte original comme dans la traduction.

Abstract

With the translation into Basque of the classic *Wuthering Heights* by Emily Brontë, the present article carries out a critical analysis of the work of its translator, Irene Aldasoro. Given the extent and depth of the work of translating Brontë's novel, the article cannot carry out an analysis of similar scope, and therefore cites only the most relevant details of Aldasoro's translation, analyzed through comparison between the translation and the original text. Among other issues, the article discusses the translation of the title and the use of different dialects of Basque, but emphasizes the formal style of the work, providing examples from both the original text and its translation.